

TALDE ERAGILEAREN **2017ko 2. Bilera, 2017-06-14**

BILERAREN MEMORIA DESKRIPTIBOA

BERTARATUTAKOAK:

- Udal ordezkaria: Eztitxu Mujika
- Herritarrak: 11 lagun bertaratu dira, 7 emakumezkoak eta 4 gizonetzkoak.
- Dinamizazio lanak: Aztiker Soziologia Ikerguneko teknikaria, Markel Ormazabal

1. AURKEZPENAK ETA KOKAPENAK:

2017an, eta zehatzean maiatza eta ekainean zehar, egindako ibilbidea erreparatu eta kokatu da, bai ekintzen baitan, eta baita ere ekintza horiek eman duten edukiaren baitan ere.

2. LEHIAKETARAKO OINARRIEN EGOKITZAPENA ETA PROZESUAREN URRATSAK:

Bi dira 2017rako jarri diren erronka nagusiak:

1. Plaza eraberritzeko IDEIA-LEHIAKETA egitea. Plazan udal eraikin berria eta aterpea behar ditugula ondorioztatu zen eta aukera ezberdinak mahai gainean izateko, arkitektoentzat lehiaketa antolatzea erabaki zen.
2. Aurrekoari lotuta, egun Kultur Etxe zaharrean ematen diren zerbitzuak lekualdatzea, horretarako Udalak duen Artxanberriko lokala egokituz.

Udalak, bestalde, finantzaketa bideak jorratzeko konpromisoa hartu zuen. Aurtengo bi erronka hauei erantzuteko adina diru dagoela ziurtatuta, eta aurrera begira espektatibak onak izanik, beste partaidetza fase bati hasiera eman zaio.

Fase berri honen baitan, maiatzaren 26an, arratsaldeko 16:00etatik 20:30era bitartean, **ATE IREKIAK** ospatu ziren aurtengo erronka diren bi guneetan: HERRIKO PLAZAN eta ARTXANBERRIN. Gune bakoitzari dagozkion azalpenak jasotzeko aukera izan zen bertan, erakusketa moduan eta hitzez, eta zalantzak argitu zein iritzia emateko aukera ere izan zuten herritarrek.

Talde eragilean parte hartzen duten lagunek ere, zalantzak argitu eta galderak egiteko parada izan dute azalpenak eman bitartean. Artean, **lehiaketarako Oinarrien egokitzapenen berri** ere eman delarik.

Orokorrean, galderak egutegiari zuzenduak egon dira, eta herritar batek, ondorengo galdera/gogoetak ere planteatu ditu:

- Aurreko pleguetan jasotzen zen bezala, ea orain ere aurkeztu daitezkeen proiektuetatik bat bera ere ez hautatua izateko aukera ba ote dagoen.

Aukera hori orain ere jasotzen dela erantzun da.

- Hizkuntzari lotutako kezka agertu da. Galdetu eta proposatu da ea, hautatua izango den proiektuaren egileek, proiektua garatzerako orduan (eta berdin zaldibiarrei aurkeztean) euskaraz egingo dutela ziurtatu ote daitezkeen nolabait.

Kezka bera atzetik dator. Maiatzeko talde eragileko bileran ondorengo proposamena jaso zen: "Hizkuntzari dagokionez, proposatzen da oinarrietan zehaztea lehenetsiko direla edota puntuatuko direla euskaraz aurkezten diren proposamenak. Alegia, euskaraz egitea baloratzea."

Ekarpena udal idazkariarekin eta arkitektoarekin kontrastatuko zela adostu zen, legezko formulazioa zein izan daitezkeen argitzeko. Proiektuak aurkezteko eskatu daitezkeen baldintza bakarra bi hizkuntzen erabilera egitea da.

Kontraste eta tramiteak eginda, erantzun da lehiaketako pleguek bi hizkuntzak erabiltzeko baldintza jaso dezaketela, baina ezinezkoa dela, legeak hala diolako, soilik euskara hutsean aurkeztu proiektuak onartzea.

Talde eragileko hainbat lagunek kezka agertu dute, neurri edo baldintza honek ez duelako proiektuaren garapenean euskararen erabilera bermatzen. Eta beraz, proposatu eta adostu da lehiaketa pleguez harago, udalak esleitu izango den enpresarekin izan beharreko tratuan hizkuntzaren erabilera dagokionean zein nolako baldintzak eskatu daitezkeen aztertzea.

- Azkenik, epaimahaiaren osaeran generoaren gaia nola dagoen galdetu da. Hemen ere, legeek jasotzen dutena aplikatuko dela erantzun da. Hau da, proportzioek %40-%60 izan behar dute.

Prozesuko hurrengo urratsen galdera zehatzez gain, parte hartzaileetako batek gaurko egunez Hitza egunkarian kaleratu den albisteari buruz galdetu du:

"Herrigintzan taldeak udal eraikinen inguruko parte hartze prozesua utzi du" (Goierriko Hitza, 2017-06-14)

Une honetan egon diren hitzartzeek harridura eta ezin-ulertua agertu dute, eta bilerako gai ordenarekin aurrera egiteko, gaiari buruzko kezkak bilerako azken puntuan tratatuko direla adostu da.

3. ATE IREKIAK: BALORAZIOA ETA JASOTAKO EKARPENAK:

Jarraian, maiatzaren 26ko Ate Irekiak jardunaldietan herritarrek egindako iritzi eta ekarpenen emaitzak aurkeztu dira eta parte hartzaile bakoitzari laburpen txostena entregatu zaio.

Arestian esan bezala, herritarrek ezagutu eta baloratu egin dute 2017an egingo diren ekintzetan herritarren parte hartzea eta posizionamendua nola gauzatzea proposatzen den. Eta zehatzean:

- Arkitekto eta talde profesionaletako lehiaketa publikoa
- Lehiaketan aurkeztuko diren proiektu ezberdinak herritarrek baloratzeko dinamikak eta kronograma proposamena
- Erabakia hartzeko egitura eta lan dinamika proposamena

[Emitzen txostena eskuragarri dago udaleko web gunean]

4. EPAIMAHAIKO HIRU ORDEZKARIEN HAUTAKETA:

Lehiaketako epaimahaia 9 lagunek osatuko dute, eta horietatik 3 herritarrak izango dira; hau da, beren egiteko nagusia, irailean antolatuko den proiektuen erakusketaren ondotik, gainontzeko zaldibiarren iritzi eta balorazioak epaimahaiko bilkuretan aurkeztu eta defendatzea izango da.

3 ordezkariak ekainak 30erako izendatuak egon behar dute, eta hain zuzen ere, talde eragilearen gaurko bileraren arrazoi nagusietako da 3 herritar ordezkari horien izendatze lanekin hastea. Horretarako, parte hartzaileak hiru talde txikitan antolatu dira, hiru lagunez osatutako bi eta hirugarrena lau lagunez osatua.

Ariketaren helburua talde bakoitzak hautagai posibleen zerrenda egitea da eta proposamenak egiteko ondorengo irizpideak aintzat hartzea erabaki da:

- Adina: 3 herritar hautatu behar direnez, aukeran bakoitza adin segmentu ezberdin batetako izatea proposatu da: gaztea-heldua-adinekoa.
- Generoa: epaimahaiaren osaera behin betikoak legeriaren arabera berdintasun irizpideak errespetatu beharko ditu. Kuota horiek hautatutako herritarren generoaren arabera moldatuko dira, herritarrek izango dituzten ezaugarrien arabera, alegia. Hala eta guztiz ere, eta herritarrak 3 izanik, 2/1 izango dira.
- Prozesuaren gutxieneko ezagutza izatea: Hautagaiak ez dute zertan talde eragileko izan behar, baina prozesua edo orain arteko ibilbidearen gutxieneko ezagutza bat izan beharko lukete.
- 3 hautatuak proiektuei buruz iritzia eta balorazioa egin duten gainontzeko zaldibiarren ordezkariak izango direnez nolabait, herritarrekiko gertutasuna izatea ere garrantzitsua da.

Talde bakoitzak koadro batean jaso ditu proposamenak.

PERFILA						HAUTAGAIA	
ADINA			GENEROA		PROZESUAREN EZAGUTZA		ORDEZKARITZA
ADI.	HEL.	GAZ.	E.	G.			

Gaurko bileran 2 ordezkari hautatu dira: Aintzane (gaztea) eta Mila (adinekoa). Bata zein bestea taldetxoetako proposamenetan irten dira, eta talde handiaren oniritzia jaso dute gero. Hirugarren eta azken izendapena hemendik eta ekainaren 30 bitarte erabakitzea adostu da, proposatu diren pertsonekin harremanetan jarri eta beren iritzia ezagutu ostean. Gaurko bileran parte hartu ez duten pertsonen izenak aurkeztu direnez eta oraindik iritzia eskatu ez zaienez, ez ditugu izenak jasoko memoria honetan.

5. BESTE ZENBAIT: ZALDIBIA HERRIGINTZANEN ERABAKIARI BURUZ

Horago adierazi bezala, parte hartzaile zenbaitek Zaldibia Herrigintzan plataformak prentsaren bidez agertu duen erabakiaren inguruan hitz egitea eskatu dute.

Oro har, erabakiak harridura sortu du eta parte hartzaile batek adierazi du faltan izan duela plataformako kideak gaurko bilerara etorri, eta erabakiaren berri aurrez aurre ematea. Udal ordezkariak, Eztitxuk, azaldu du aldebiko bilera egin zutela plataformako ordezkariekin, eta prozesua aurrera doala ulertuta, prozesua ez oztopatzeke konpromisoa hartu zuela Zaldibia Herrigintzan plataformak.

Harridura eta "pena" izan dira, oro har, erabakiak talde eragileko lagunengan eragin duen erreakzioa. Dena den, prozesuak aurrera egiten duela eta, esker ona adierazi dute, baita orain arte egin denagatik ere.

6. IRAILERAKO KRONOGRAMA

Bilera amaitu aurretik, eta prozesuaren azken hilabeteotako lanaren berri ematean egin bezala, iraileko lan eta egitekoen egutegia gogorarazi da berriro.

Koadroak aste bakoitzerako jasotzen dituen egitekoak aste horietan egingo direla ziurra den arren, koadroak agertzen dituen egunak behin behineko proposamena dira, eta egun zehatzak adostu bezain pronto jakinaraziko da.

IRAILEKO KRONOGRAMA

Aste bakoitzeko eginbeharrak:	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
Irailak 1, ostirala, proiektuak jasotzeko azken eguna.					1	2	3
Proiektuak jaso eta 15 egun baino lehenago epaimahaia lehen aldiz bildu behar da.	4	5	6	7	8	9	10
Herritarrek proiektuak ezagutu eta baloratzeko ERAKUSKETA	11	12	13	14	15	16	17
Erakusketa eta herritarren balorazioak aztertzeko TALDE ERAGILEAREN bilera, epaimahaian ordezkari izango diren herritarrekin batera, helarazi eta defendatu beharrekoa komunean jartzeko.	18	19	20	21	22	23	24
Epaimahaia lehen aldiz elkartu eta gehienez 20 egunera eman behar du ebazpena. Beraz, aste honetan bildu beharko da.	25	26	27	28	29	30	